

## ARABAKO FORU ALDUNDIA

## DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA

## Administrazio Xedapenak

## Zerga Premiatasuneko Araugintza Dekretuak

## OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

2755

**2/2009 ZERGA PREMIAZKO ARAUGINTZAKO DEKRETUA, apirilaren 7ko Diputatuen Kontseiluarena. Horren bidez, zerga alorreko presako zenbait neurri onartzen dira.**

1/2009 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuak, urtarrilaren 20koak, hedatu egin du Balio Erantsiaren gaineko Zerga hilerotzuzteko sistema, eta beste aldaketa batzuk egin ditu zerga araudian. Horren xedapen gehigarri bakarrean, berandutze interesa urteko % 7an ezarri zuen ekitaldi horretarako.

Europako Banku Zentralak (EBZ) interes tasetan egindako azken beharpenek diruaren prezioa euro zonan % 1,25ean jarri dute. Horrek gomendagarri egiten du berandutze interesa egungo errealitatera moldatzea, % 7tik % 5era jaitsiz.

Foru Aldundiak, ekonomia krisian gaudela kontuan hartuz, egokia deritza berandutze interesaren tasa aldatzeari.

Aipatutako zirkunstantziengatik, premiazkoa da neurri hau onestea. Hori guztia, 6/2005 Foru Arauak, otsailaren 28koak, Arabako Zergen Foru Arau Orokorrek, 8. artikuluan ematen duen baimena oinarri hartuz. Baimen horretaz baliatuz, Foru Aldundiak, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren proposamenez, foru arau maila duten xedapen orokorrak eman ditzake.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak egindako txostena aztertu da.

Horren arabera, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuak proposatuta, eta alde zuzenetik Diputatuen Kontseiluan gaur egindako Batzarrean eztabaidatuta, otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauak –Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorrek– eta abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak –Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzkoak– Foru Aldundiari emandako eskumenen arabera, premia arrazoiengatik hauxe

XEDATU DUT:

**Artikulu bakarra. Berandutze interesa.**

2007ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra eragina izanik, otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauak, Arabako Zergen Foru Arau Orokorrek, 26. artikuluko 6. idatz zatian aipatzen duen berandutze interesa % 5 izango da.

AZKEN XEDAPENAK

**Lehenengoa. Indarrean jartzea.**

ALHAOan argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean xedapen hau, eta bere testuan xedatutakoaren arabera izango ditu ondorioak.

**Bigarrena Gaitzea.**

Arabako Foru Aldundiari baimena ematen zaio xedapen orokor hau garatu eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak emateko.

**Hirugarrena. Biltzar Nagusietara bidaltzea.**

Zerga Premiazko Araugintzako Dekretu hau Arabako Biltzar Nagusiei aurkeztuko zaie, berretsi edo ezeztatu dezaten, indarrean dagoen araudian ezarritakoari jarraituz.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko apirilaren 7a.– Diputatu Nagusia, XABIER AGIRRE LÓPEZ.– Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko Foru Diputatuak, JOSÉ LUIS CIMIANO RUIZ.– Ogasun Zuzendaria, JOSU ZUBIAGA NIEVA.

## Disposiciones Administrativas

## Decretos Normativos de Urgencia Fiscal

## DEPARTAMENTO DE HACIENDA, FINANZAS Y PRESUPUESTOS

2755

**DECRETO NORMATIVO DE URGENCIA FISCAL 2/2009, del Consejo de Diputados de 7 de abril, que aprueba diversas medidas urgentes en materia tributaria.**

La Disposición Adicional Única del Decreto Normativo de Urgencia Fiscal 1/2009, de 20 de enero, que generaliza el sistema de devolución mensual en el Impuesto sobre el Valor Añadido e introduce otras modificaciones en la normativa tributaria, fijó el interés de demora en el citado ejercicio en un 7 por 100 anual.

Las últimas rebajas de tipos acometidas por el Banco Central Europeo (BCE), que han situado el precio del dinero en la zona euro en el 1,5 por 100, aconsejan ajustar el interés de demora a la realidad actual, reduciéndose del 7 por 100 al 5 por 100.

La Diputación Foral, sensible al entorno de crisis económica, considera conveniente modificar el tipo de interés de demora.

Las circunstancias comentadas motivan la urgencia de la aprobación de esta medida, todo ello en base a la autorización establecida en el artículo 8 de la Norma Foral 6/2005, de 28 de febrero, General Tributaria de Álava, en virtud de la cual la Diputación Foral, a propuesta del Diputado Foral de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, podrá dictar disposiciones generales con rango de Norma Foral.

Visto el informe emitido al respecto por el Servicio de Normativa Tributaria.

En su virtud, a propuesta del Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, y previa deliberación del Consejo de Diputados en Sesión celebrada en el día de hoy, en uso de las atribuciones que concede a la Diputación Foral el artículo 8 de la Norma Foral 6/2005, de 28 de febrero, General Tributaria de Álava y la Norma Foral 52/1992, de 18 de diciembre, -de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de la Diputación Foral de Álava-, por razones de urgencia,

DISPONGO:

**Artículo Único. Interés de demora.**

Con efectos desde el 1 de abril de 2009 hasta el 31 de diciembre de 2009, el interés de demora a que se refiere el apartado 6 del artículo 26 de la Norma Foral 6/2005, de 28 de febrero, General Tributaria de Álava, será del 5 por 100.

DISPOSICIONES FINALES

**Primera.- Entrada en vigor.**

La presente disposición general entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el BOTHA, y surtirá efectos según lo dispuesto en su articulado.

**Segunda.- Habilitación.**

Se autoriza a la Diputación Foral de Álava para dictar cuantas disposiciones sean necesarias para el desarrollo y aplicación de la presente disposición general.

**Tercera.- Remisión a Juntas Generales.**

Este Decreto Normativo de Urgencia Fiscal se someterá a las Juntas Generales de Álava, para su convalidación o revocación, de conformidad con lo establecido en la normativa vigente.

Vitoria-Gasteiz, 7 de abril de 2009.– Diputado General, XABIER AGIRRE LÓPEZ.– Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, JOSÉ LUIS CIMIANO RUIZ.– Director de Hacienda, JOSU ZUBIAGA NIEVA.